



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || X Urtea || 1928'ko Garagañila || 114 Zenbakia || :—

SAKRAMENTUAK

Haurietis aquas in gaudio de fontibus Salvatoris (Is. XII-3)
Zerurazlearen iturietatik pozik aterako dituzute urak.



AUR asten gera Kristau-ikasbidearen laugarfen zatia azaltzen.

Sakramentuak dira Jesukristok bere grazia ta onbideak guri emateko jafitako ezagungafi agirikoak.

Sakramentuak ezagungafi batzuek dira. Ezagungafiak esan nai du, zerbait ezagutzeko bidea. Onela ekea suaren berezko ezagungafia da. Ezagungafi asko dauzkagu gizonak zerbait adierazteko artuak. Gurutzea,

kristauaren ezagungafi da. Olio-adafa, bakearen ezagungafi da. Norbaiti eskuak estutzea, maitetasunaren ezagungafi da.

Ezagungafi oiek guziak agertzen digute, oiek dauzkanak zer daukan gogoan. Jesus'ek sortu dituen Sakramentuak, edo bere ezagungafi auek be-fiz dira guri adierazteko gure animan berak egiten dutena. Ezagungafi auek sortu ditu Jesus'ek guri emango digun bere grazia ta onbideak adierazi ta emateko.

Artarako dira ezagungafi auek agirikoak, edo X-gafen Pio'k dion bezala.

Zentzuzkoak eta graziaren eragileak.

Nai al dezu ikasi zer esan nai duen itz oiekin? Berafek esango digu, ba: «Sakramentuak zentzuzko ezagungafi ta graziaren eragile deitzen ditut, Sakramentu guziak, zentzuzko edo agiriko gauzaren baten bidez adierazten dutelako, gure animan ezartzen duten jainkozko grazia».

Ori nola dan, nai dezu argiago ikusi. Begira, ba Bataioari. Bataioan ura ixurtzen da norbaiten buru gañera itz auek esanaz: Nik bataiatzen (garbitzen) zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Ur-ixurtze ori ta itzok dira zentzuz aġapatzen ditugunak. Eta bi gauza oiek ederki adierazten digute, urak gorputza bezala, Jaungoikoak anima garbitzen digula Sakramentu ofen bidez.

Gizon bidaria, zeru bidean dan artean, ontzeko, Jesus'ek ġari dizkigun bide baztaġeko itufi osasungafi batzuek dira, ba. Beren uretatik bear degu edan guziok, zeruan egunen batez sartzekotan.

Ezagungafi oiek ebakitzen dute, Jaungoikoa gizona ganaño ta gizona Jaungoikoa ganaño jasotzen duen bide aġigafizkoa ta Jaungoiko ta bere aufen artean betiko artu-emanai eusten die (Sylvain)

Sakramentuak nola diran graziaren eragile.

Sakramentu bakoitza artzeko eragozpenik edo trabarik jartzen ez duenari berez eta oiek artzean bereala ematen diote Jaunaren grazia. Eta grazi berezia ematen digute, artzen degun sakramentuaren ariora.


Sakramentuak *ex opere operato*, au da, berezko egitez edo indaġez sortzen dute, ba, animaren ona. Sakramentuak ez dute, geroztik, grazi ġeġago edo gutxiago emango, beroien emalea onagoa edo ġaiztoagoa delako. Argatik, pekatari batek ematen duen bataioak, ezta gutxiago balio, santu batek ematen duenak baño. Eta bereonela beste sakramentuetan ere.

Artzen dan sakramentuaren artzalea, bere aldetik ura artzeko bear dan eran paraturik baldin ba-dago, Espiritu Santuak bertatik ematen du bere grazia. Jesukristoren merezimenduz eta ark sakramentu bakoitzean eman nai duen ariora ematen zaigu oiek artzean, ez ordea oien emalearen merezimenduz edo ark eskatzen duen ariora. Jesukristok sakramentua egiteko aġindu zuena eġiñez geroz, bereala sortzen dute bere ondore ona.

Bizien eta ilen sakramentuak.

Bizien sakramentuak deitzen zaie, artu bear dituenagan Jaungoikoaren grazia edo adiskidetasuna eskatzen dutenak. Auek dira Sendortza, Jaunartzea, Apaizgoa, Ezkontza ta Azken Igurtzia (azkeneko ontarako bear da bildur-damua, besterik ezin denean). Ilen sakramentuak deitzen zaie, anima pekatuan ilik daukaten aientzakoi; auek dira beġiz Bataioa ta Aitortza.

Intza'r Damaso An.



Jesus'en Biotza

Baunard Jaunaren orialde ikasgarria.

Jaungoikoa maitetasuna da, *Deus est caritas*. Bere betiko Biotzak beti maitatu izan du; Jaungoikoaren maitetasun ortan bila zazute, goiargiz dakizkigun siñesgai guzien oñafia, Jesus'en Biotzaren Teologia or dago.

Jaungoikoak maitatzen du, ta maitatzeak esan nai du ematea; Berak eman digu guzia; ortik gauza guzien Sortzea.

Maitatzea da, maite denari itzegitea, ezagutu dezan maite degula. Jaungoikoak itze-gin digu; ortik Goiargitzea (efebelazioa).

Maitatzea, maite degunaren antzeko biurtzea da; ortik (Jaungoikoaren) Gizonegitea.

Maitatzea, maite degunagatik nekatzea da; ortik gu Erostea (Jesus'en Nekaldia).

Maitatzea, maite degunaren onez bizitzea da. Ortik Eukaristia.

Maitatzea, maite gaituenarekin bat egitea da: ortik Jauna artzea.

Maitatzea, maite gaituenarekin beti gozatzea da; ortik zerua. *Sic Deus dilexit.*

Eta Jesus jauna jainkozko Jauna baita, bere Biotzak beregan ditu Jaungoikoaren Biotz sortze gabearen maitetasun guziak eta berak adierazten Aren agerbide guziak... Ortxe degu katolikoek siñesgai guzien ezagungari bizi ta punpalaria.



Pedro Mari Amerikanoa

Joxe Antonek ostatutik alde egin zuenean, ostalariak, koreoak eta beste norbaitek ere loxintxa pranko egin zioten Pedro Mari'ri.

Batek zion: «Zertako utzi diozu ofela txotxolo orí?». Ostalariak: «Ezpañak garbitzen oraindik ikasi eztuen afo uts orí olakoak esaten utzi?» «Neroni erantzun beafean egon naiz» zion koreoak.

Bakoitzak gogo zuen edo al zuen eran Amerikanoaren biotza lasatzea egin zuten, basoak bete ta basoak Amerikanoaren lepotik ustuz eta esanez: «Riau, riau; gurea dek au».

«Óragatik, datoñen igandean baldin ba-dator bidegafo ori, gaurko ordañak eta asto beltzarenak aitu bear dizkik», zion D. Pedro Mari'k.

.....

Igandea etorri zan eta Joxe Anton'ek baita ere sumatu Amerika noiz biltzen zan ostatura, bere betiko lagunakin. Betiko lagunakin esan det baño, beñere baño lagun geiagorekin esan nezake. Lengoa gertatuaren otsa legortean ostots soñua baño azkafago ta gozaro go zabaldurik, uliak gazurera edo umeak danbolin soñura bezala bildu bai ziran ostatura.

Joxe Anton sartu zeneko gure Amerikanoa ari zan esaten: «Gazte gizajo guziok lau liburu zar, apaiz berak egiñakin itxuturik zeuzkatek eta uste die berak eta uste dezute zuek ere Apezaren esanagatik ori egia dala; baño erlijioaz mundu aundian ez baitu iñork ajolik».

Ate ondoan, tente, entzun zituen Joxe Anton'ek azkeneko itzok, baño deus entzun ez duenarena egiñez, aratsalde onak eman zizkien bañeren zeuden guziei.

Geienak, beren paña mufitzaz adierazi zioten beren atsegiña. Laxter lekua eskeñi ere bai, D. Pedro Mari'ren aurrez-aure jafi zedin.

Onek ere abegi ona egin zion, bostekoa luzatuz, lengotan ez bezela.

Éritar guzien begiak Pedro Mari'gan josirik zeuden, zer ateraldi egingo ote zuen. Bere lagun befiarentzat baso bat eskatuz, bereari zufutetxoia egin zion. Eta onen ondoren esan zuen: Orain esaten gendun, ba, zuek Apaizgai gizajo aukeratu, lau liburu zurekin txoraturik eta itxuturik ekartzen zaituela Apaizak.

—Baliteke, baño eztatik naski ongi-ongi Apaiz artean gertatzen dena. Zuk uste dezu, guziak gure éfi koxkofetako zenbait Apez bezin liburu urian bizitzen dirala. Eta ortan oker zaude. Liburu asko ta mamitsuak ala ere ikasten ditugu, gure ikastaro luzetan; amaika urtez zerbait ikasi bai ditekete.



Euskaleriko txoko bat

—Zuei siñetsi-azten dizute mundu guzia katoliko dela ta beste erlijiorik eztela ta kito. Ai! nik aña irakufi (leitu) ta ikusi ba-zenu!

—Zuk aña? Zuk zer liburu irakufi edo ikusi dituzu, ba?

—Liburuak ez baño paperak; baño liburu edeñenak aña balio dutenak.

—Ea, ba, esaiguzu; zer paper ikusi dituzu? Zuk nonbait ere upatuko zenitun, katolikoen erlijioa gezuñezkoa dala, zain-zañetik erakusten duten, aspaldietako paper zar, iñork gaurdaño agertu ez di-tuenen batzuek edo? Ea esaiguzu, zer paper ikusi dituzu, ba?

—Nik, European ikusten ez diran bezaleko paperak. Amerikara joan bear da, eguneroko paper edeñak ikusteko.

—Ja, ja, jai! Amerikako eguneroko paper aundi aiek irakufi dituzu?

Baño, gizona, ofenbeste ikusi ta ondorean, ez al dakizu paper

oiek gau batean nolabait betetzen dituzten paperak dirala, ta guk leitzen ditugunak befiz ainbeste urtetako buruauste askoren ondorean beren egile jakintsuak emanak dirala?

—Oñelako paper aundiak gau batean betetzen dituzten gizonak, ez dira nolanaiko gizonak.

—Baño D. Pedro Mari! Ez al dakizu, paper aundi oiek beren egile guzien artean geienez nekez izaten dituztela bi gizon, beren ikastaroak ongi egiñak, eta oien egiletan jakintsuenak geienez noiz-pait apezetako ikasten ibili-ta, artarako bururik aski ez edo, batzuek gogorik ere ez eta ala geldituen batzuek izaten dirala? Ta aien aldean jafi naiko zenituzke Agustin santua, Akinotar Tomas santu, Buenabentura santua, Eskoto, Suarez, Balmes, Uñaburu ta beste ainbat jakintsu, guk guziok ikasten ditugunak?

—Santu ta jakintsu oiek ere ezetz egin beren liburu aundiak ain laxter?

—Ainbat obe, gizona, ainbat obe. Oñen laxterka ta geiagoko begiramenik gabe egiten dituzten paperetan ez al zera oartu oraindik zenbat gezur jartzen dituzten? Ortarako naikoa dezu, ba, zure eñian izan dan meza befi edo ezkontzaren baten beñia, nola ematen duten ikusi. Oietan zenbat gauza aldatuak eta izan eztiran eran emanak. Alatsu joaten dira, ba, beste gauzak ere.

—Ai! aiek gizon jakintsuak dira!

—Aiek? baño zein dira aiek? Zuk zein paper artzen dituzu Argentina'tik? Buenos Aires'en egunero iru onak eta bata gaiztoa ateratzen dira, nik dakitenaz. Jakiña da, zuk azkeneko ori artuko dezu nonbait, eta guziak ofen antzekoak dirala uste dezu. Oñen antzean gau batez edo egun erdi batez egiñak dira, besteak ere, baño zurearen gofotorik erlijioarentzat ez dutenak. Oien egiletan nor dira, ba, jakintsuenak, esaiguzu?

—Zer, baño, bai al dakizu Buenos Aires'en zein paper ateratzen diran, Joxe Anton?

—Ara! Eztet, ba, jakingo? Ta iru onak ikusiak dauzkat eta zuk artzen dezun txar ori ere bai, azaletik bada ere.

—Zein dira, ba?

—Zuk esan bear zenuen, baño esango dizut, eztakizun ezkeror; *La Nación*, *La Prensa* ta *La Razón* dira onak, azkeneko ori afatsaldetan azaltzen da; gaiztoa befiz zuk artzen dezun *La Crítica* ori da, ta ori ere afatsaldetan ateratzen da. Oña, ba, zure paper aundi ta asko jakiñak ere ezagutzen ditugu apezgai gizajook. Eta gaurkoaz naikoa degu; laxterka joan beaŕean nago-ta.

Eñitar guziak batera oiñ egin zuten: Agur, agur!

Legateko Artzaia

UDABERÍA

Negu-lozofotik
esnatu da luía:
mendi-egaletan
urtu da eluía.

Jolasean dabiltz
bildotsak soroan:
asi da kukua
kantari basoan.

Otza ba-dijoa
etxetik igesi:
piztu dira udare,
sagar ta gerezi.

Beste luíaldetik
eldu da txoria:
lorez eta abestiz
josi da mendia.

Lanean soroan
kantari gazteak:
eguzkitan alai,
amona-agureak.

Basefi aúfean
jolas dagi aúfak:
pozez zaunga dagi
alboan zakúfak.

Bizitzak musuka
piztu du lur íla: .
Maitaleak, poztu. !
eldu da Oíla.

+*+

Udabería, udabería,
ama emakoi kutuna!
Ixuri guban zure bulafen
esne sendakor leguna.

Mendi-gañetik ikusi zaitut
etortzen gure artera,
usai gozozko janzki zuriaz,
efegiñ baten antzera.

Zelaitik-zelai ibili zera
loraz jositzen zelaia,
ta ibar ta mendi, nun-nai zabalitzen
zure janzkien usaia.

Zure etoferá nabaitu dute
seaskatxotan aurtxoak,
ta sotondoan otzez dardaraz
zeuden agure ta atsoak.

Zure etoferaz, kabia-eiteko
txoriak alkartu dira:
agurka zuri, txaloka daude
gazteak zuri begira.


Agur eta agur, udabería,
ongi etofi gugana:
ez. afen, guri ukatu gaurtik
zure musu ta laztana.

Ixuri guban zure efaietan
dakartzun emaitz bizia;
izan zu gure sukaldetako
zorionezko euzkia.

Izan aurtxoen zoragafia.
agureentzat, bizitza.
gazteentzako, maitasunezko
ilargiaren dirditsa.

Zure besarkaz berotu, afen,
gure Efiaren biotza:
urtu, oraindik bular-gañean
ai! daukan neguko izotza.

Jauregi'tar L.





TOZ, JESUS ONA



ELDUAYEN A.

Jauregi'tar Luis'en itzak.

A -

toz Je-sus o - - na Zu - re e-ga-riz ge - - ra; gu - - re zo-ri - o -

na. Zu ba-ka-rik ze - - ra gu - - re zo-ri - o - - na Zu

ba-ka-fik ze - - ra Mai-

ta - su-nik ga - be Ur - - te-ak mingo - tzak; Be - - re jaun ta ja -

be Nai zai-tu bi - o - - tzak Be - - re jaun ta ja - - - be Nai-

zai-tu bi - o - - tzak.

Maitasun-eztia
Zure Maitasuna,
bizitza beria
ematen diguna.

Erleak loretik
egin dute ezitia;
Zure Biotzetik
nik bizitz beria.

Jauna, atozkit bela,
Zure Ura ekariz:
Maitasun-egariz
ilko naiz bestela.

Prantzisko Santua ta betiko bizitza

Prantzisko Santua begietako miñez oso gaizki zegoan aldi batean, Kardenal Ugolino jaunrik (Ordenako Zaindaria), Prantzisko Santuari efukiz begiratuta karta pozgafi bat egin zion, esanaz, joateko Rietira bere etxera, an sendagile azkafak zeudela begietako miña sendatzeko-ta.

Prantzisko Santua orduan belaxe joan zan Done Damianera, Jesukristoren emazte zintzo Klara Santua poztuta, Kardenal jaunaren etxera joateko. Baña an lenengo gabeen begietatik gaizkiago jafi ta itxututa geratu zan; eta orduan andik iñora joateko etzalako, Klara Santuak kañaberazko gelatxo bat egin zuan, antxe ondo egongo zalakoan.

Baña Prantzisko Santuak bere begietako min aundiagatik, eta an zebilen sagu pila aundi gogaikafiagatik, etzuan batere atsedetik artzen, ez egunez eta ez gabaz. Eta olako lanak luze zijoazela, ta bere pekatuakatik Jaungoikoak bialiak zirala gogoratuta, bere biotz guziaz Jaungoikoa agurtu ta goratu zuan eta bere indar guziakin esan zuan: Jauna, nik ondo irabazita dauzkat olako lanak eta aundiagoak ere. Jesukristo nere Jauna, Artzai Ona, gorputzeko gaitzen bitartez zure efukitasuna pekatarioi agertzen diguzuna, indazu laguntza ta indafa, gaitz guziakatik ere zugandik iñoiz ere ez alde egiteko.

Otoitz au egin bezin laister, Jesukristo gure Jaunak erantzun zion Prantzisko Santuari: Prantzisko, lur guzia ufea balitz eta mendi guziak, eta basoak, eta arkaitzak ari edefak balira, ta itxaso guziak, eta ibaiak, eta itu-fiak sendakai gozoak balira, ta zuk ondasun guzi oiek baño aundiagoa bila-tuko bazendu, ta ondasun ain aundi ori zure gaitz ori ondo eramateagatik zuri emango balizue, ez al zenduke zuk pozik egon bear?

Prantzisko Santuak orduan erantzun zuan: Jauna, ni ez naiz olako ondasun aundiaren gai. Jesukristo gure Jaunak orduan Prantzisko Santuari esan zion: Prantzisko, poztu zaite, ba; ondasun ain aundi ori betiko bizitza da, nik zuretzat ondo gordeta daukadana, ta zure gaitz ori ondasun ain aundi ofen ezaugafia da.

Prantzisko Santuak ola Jesukristogandik jakin zuanean betiko bizitza seguru zeukala, oso pozik bere lagunari deitu ta ezan zion: Goazen Kardenal jauna ikustera. Ta Klara Santuari oso apalki agur eginda, belaxe joan ziran Rieti aldera. Baña Rieti ondora eldu ziranean, Rietiar asko irten ziran bidera Prantzisko Santua ikustera; ta orduan Prantzisko Santua, Rietira joan baño len andik ordu erdi inguruko bidean zegoan eliza batera joan zan. Orduan Rietiafak ere araxe joan ziran, eta gero eliza ondoko mastiko matsik onenak artuta jan zituzten eta masti guzia ondatuta utzi zuten.

Apaiz jauna ofegatik oso mindua ta Prantzisko Santua bere elizan ar-tu zuelako oso damutua zegoan bere bafuan. Prantzisko Santuak Jesukristogandik jakin zuan, zer gertatzen zan eta belaxe Apaiz jaunari deitu ta esan zion: Aita maite-maitea, zenbat zagi ardo ematen dizkitzu ma'ti onek urterik onenean? Apaiz jaunak erantzun zuan: Amabi zagi ardo. Prantzisko San-

tuak orduan esan zuan: Aita, ba nik Jesukristo gure Jaunaren izenean agintzen dizut aurtien ogei zagi ardo emango dizkitzula; ta eskatzen dizut egun batzuetan ni emen egotea ondo eramateko, ta ni ikustera datozen guziaz matsu jaten uzteko. Prantzisko Santuak au esan zuan, an poz andia artzen zualako, ta bera ikustera zijoazenak zerutar mesede aundiak artzen z'uelako, ta auetako askok Jaungoikoagatik mundua uzten zutelako. Apaiz jaunak be-fiz Prantzisko Santuaren aginduan uste osoa jafita, Prantzisko Santua an egotea ondo eraman zuan eta bera ikustera zijoazenai matsu jaten utzi zien, eta gero masti ondutuan geratu ziran mats mordo kazkar banakak bildu ta dolaran sartuta, ogei zagi ardo gozo artu zituan.


Gertaera afigafi onek adierazten du, masti ondutuko mats mordo kas-kar banakak Prantzisko Santuaren irabazien bitartez ainbeste zagi ardo go-zo eman zituen bezela, Elizako kristau gaixoak Prantzisko Santuaren iraba-zi ta erakutsien bitartez betiko bizitzako frutu edefak i gari ematen dituela.

Aito Eskoriatza.

(Fioretti liburutik euskeratua)



Kansu (Txina)—Neskatxa kristauak jantzi eder berietan



Intzar Damas Aita Agurgariari

Biotzeko Aba ori:



Zuk Iruña'tik Urñaren 21'ean egiña, ilabete onen 13'an artu nuan. Nere Aberitik aspaldian artu deian idazki bakoña auxe da; ez bakoña, zurearekin batean Muru'tar Aita Luis'arena ere etori zan. Esker mila, bada, zuei bioi, zuen idazkiakatik.

Zurean esaten didazu, zuek, zuen lan geyegiz eta ibili bear aundiz, idatziko ez pazenidate ere. nik zer edo zer maiz idazteko. ¿Zuek bai al dakizute, ba, zer dan ibiltzea? Zuk Lekunber'i'ra edo Aldatz'era edo Leitza'ra juan bear dezula, eguerdian Iruña'n bultzia edo trena artuko dezu, an baruan ederki eseri (lekurik baldin ba-dezu), bero-bero, nai ba-dezu otoitzak egin, nai ba-dezu zure sermoia gertutu, nai ba-dezu beste zer-edo-zer ikasi, irokuri egin dezakezu.

Zu, esandako «biaje» oriegiteko, bultzi baruan iya zure gelan bezela zaude. Nik, 60 edo 70 kilometroko bidea egiteko, nere mandoa artu bear det, nere moroiak bere zaldia; ta biok aldapa igo, aldapa jetxi, (jeta nolako aldapak eta bideak!) azken gabeko zelai izugarriak igaro, zortzi edo bederatzi ordu bear ditugu. Ta gero, kristau baten etxera eldu geranean, ez aiaukagu gelarik, ez oatzerik, ez mairik ta ez aulkirik geyenetan. Nere kristauen etxe geyenak lur azpiko zuloak dira. Zuloak ondo eginak dira geyenetan. Zulo ura da etxea. Gela, etxe osoa da, ta etxe osoa da gela. Ala ere yendeok, Donosti'ko aberatsenak bezin pozik bizi dira, ta ni ajen far'ean nere etxean bezin pozik. Kristauok, Mixiolaria datoñenean asko pozintzen dira, ta beti ondo artzen naute. Eta nik, bide luzea egin ondorean, batez ere orain neguan, izaten deten gosearekin, edozein janari gogotik jaten det. Mixiolari bat kristau baten etxera joatea, Donosti'ko Diputadu bat Aralar'ko artzai baten

etxera joaten bezela da. Ta Mixiolariak beren janariak gogotik jaten dituala ikustez, asko poztutzen dira kristauak.

Txina'ko beste tokitan ba-dira kristau aundikiak, baño emen oraindikan ez dago olakorik; emengo aberatsenak ere nekazaritzaz bizi dira.

Zenbat aldiz galaetzen didate nere jayoteria nun dagoan, uruti al dagoan, zenbat eguneko bidea deten, mendiak bai al diran, garia emengoa bezelakoa al dan, eta ez dakit beste zenbat gauza. Noiz edo



TSINCHOW.—Txinako mutilai txistua jotzen erakusten.

noiz, emen urte batzuk igarotako mixiolari batek, ofera jua bear izaten badu, ez ditu gauza gutxi izango zuei esateko.

Emengo bazkari aundiak ere ikustekoak izaten dira. Ezkontza dala, edo iletia dala, bazkari aundiak izaten dira.

Aurena, izaten da bazkari-txiki edo bazkari-atre bat. Ipintzen dituzte orko «postre» edo «ensalada» antzeko gauza batzuk eta ardoa; baño ez orko ardoa, emengo ardoa. Bazkari txiki onen ondorean dator bazkari aundia. Batzutan, batean jartzen dituzte mai gañean sei edo zazpi katilu-janari (platerarik ez da izaten); beste batzutan, katiluak banaka ekartzen dituzte, eta agudo jan bear da; katilu bakoitza mai gañean miñutu bat edo bi egoten da geyenez.

Euskaleriko baseritararen antzera, katilua edo katiluak mai erdian jartzen dira, ta katilu bakoitzetik danok jaten degu. Katilu bakoitzetik mixiolariak asi bear du lenengo. Askotan nere maikideai geyena atsegin zayena, neri ez zait atsegin, ta denak katilu artatik jan azi

nai didate, ta nik beriz ezin jan, ta txara dala ezin esan. Emengo bazkaritan aragia izaten da ugari, ta geyena txeri aragia. Emengo mayak nolakoak diran, emen nola exeritzen geran, nola jaten degun txotxakin, luzaro idazteko gaya da, baño nik orain betarik ez, ta ikusi ez dutenai adiraztea ere ez da ezez. Noizpait emengo tresnak oreara bialtzen ba-ditugu, erazago ulertuko dezute guk esan dezakeguna.

Ba-dakit zu oso lanpetua zabiltzela; baño ni ere aspaldi ontan, eta emendik auffera uda arte, ezertarako betarik gabe nabil. ZERUKO ARGITARRAK aspaldian ez dute nererik irakuri; bat edo batek uste izango du okeren bat gertatu zaitela.

Baño ez; idazteko beta gutxi izatea da nere okerik aundiena, ta ez da oker aundia. Kristauak alde guztietatik deika, beren etxetara joateko, beren umeak batayatzera, etxekoen aitormenak aditzera. Emen nere etxean katekumenoak ari dira dotriña ikasten, ta oyek ere zaitu bear. Eguberi egunean lenengo aldiz sermoia ezin nuan elizan; ta sermoiak egitea, ta katekumenoai erakutsi bear diegun dotriña gertutzea, guretzako oraindikan lan aundia da. Egiñala egingo det zuei maiz idazteko, baño zuek nai dezuten bezin maiz ezin izango det.

Beste gauza bat: Emen daukat mutil bat, apaiz egin nai duana. Baño bere etxeokak diru gutxi dute, ta baditeke apaizgorako ezin ikasi izatea. ZERUKO ARGITAREN artean ez ote det izango, mutiko orek apaizgorako ikasteko bear duan dirua eman nai duanik? Mutiko orek Pedro Huo du izena. Pedro, txinoak Petuolu deitzen dute. Urteko, edo urtero, Ipar Amerika'ko «ogeita amar dollar» naikoa lituzke. Batek bakarrik ezin ba-du, çbi, iru edo lauen tartean ez ote dute aterako Euskaldunak diru ori? Mutiko ori apaiz egiten laguntzen ba-dio-te, jia zenbat txino bialdu ditzaken gero apaiz orek zerural!

Agur, ondo bizi ta OTOITZ, mundu ontako lan guztien ondoren, Jaunak «Requiem aeternam» eman dakigun.

P. Gregorius O. M. C.

Miss. Apost.

Chengyuen (Kansu), Lotazilaren (Abenduaren) 27'an, 1927.

Beste Misiolari bat Txina'ra

Maiatzaren 1'an, Genova'ko portuan Txinara joateko ontzia artu du beste Euskaldun Misiolari batek; Dima'ko Fernando Aitak.

Aspaldiko urte auetan Amerikan zegoen Misiolari, ta oso ongi begiratu ala ere; orain angu Nagusiaren Aolkari (Asistente) zan; gañera Buenos Aires'en degun komentuko nagusi ta bertako pafoko. Bere ama bizi du oraino, ta ura ikustera etofi zan joan den urtean. Emen zegoela, beriz Amerika itzuli beafean, Txina'ra joateko asmoa artu zuen, ta gure Ordenako Nagusien baimena iritxi ondoan, ara joan da.

Jainkoa lagun dakiola gure Misiolari azkar oferi ta Rafael Aingeru Santua doala berarekin, Misio-tokira beaztoporik gabe iritxi dedin.

Ikasi...! Ikasi...!



I.—Efotara zoala Antonen astoa,
Astalka bota ditu txalma ta zofoa.
Automobil bat dator bidean *pu! pu! pu.*
Bañan astoa geldí, eztu nai aldendu.



II.—Autoak ankazgora bota du astoa,
Lerturik an utzi-ta aufera dijoa!
Ikustekoa dago Anton gixaxoa!
Aren oiu samiñak! Aren iskanbila!



III.—«Zer? Nere astotxoa il efuki gabe,
Ta gelditu're gabe aufera zoazte?
Baldin bide ontatik befiz bazatozte,
Nola ibili bear dan ikasiko dezute.»



IV.—Afiñila aundi ori bidean jafi du,
Afiñilaren kontrán astoa zutitu...
Ilundu du; izarak asi dira agertzen,
Lur-baztefak doidoia dituztela argitzen.



V.—Naiz Anton'ek ere izan ortan pekatua,
Gizonai ari zaie esaten zutua:
«Asto txar ofengatik... tira! jo aufera!»
Asto ta ariak jo-ta ankazgora denak,
Autoa puskatu ta min-artu gizonak.



VI.—Egur ori eskuan Anton'ek gizonai:
«Kontu geixago iduki jende ta aberei;
Tira! nere astoa ordain zazute, bai;
Ta beti ongi ibiltzen ikas zazute orai.»

—== B E R I A K ==—

Egipto'ko efegea ta katolikoak.

Fouad, Egipto'ko efegeak oraindik eztu aztu, Efoma'ra joan zanean, Aita Santuak egin zion afera ona. Berak ere Egipto'ko katolikoak maite ditu. «Aita Santuari adierazi diot, esan dio efege onek obispo bati, nere mendeko katolikoak ez dutela izan, ez ta izango ere emendik aufera Egipto'n eragozpenik». Ontzat ematen zituela esan zion praile ta monjak egiten ari diran lan edera. «Badakit, zion efegeak, nere efiaren ona nai dutela ta ofen bila egitan lan egiten dutela».

Italia'ko efegearen semea.

Aste santuko egunak Jerusalem'en igaro ditu, Unberto deitzen zaion Italia'ko efegearen semeak. Ostegun santuan, bere lagunakin Jauna artu ta prozesioan Jaunaren ondoan, argia emanaz, joan zan. Ostiral santuan, etzuen uts-egin urtero kalez-kale egiten dan gurutze-bidean. Eguerdian Aita Prantziskotafakin bazkaldu nai izan zuen, oyek bezela, zapiaz apaindu gabeko mai batean, bitartean itz-egin gabe ta egun artan praleai ematen zayenetik bakarik artuaz.

Mejiko'ko katoliko erukariak.

Londres'eko izparingi edo periodiku batek dionez, orain bi ilabete egin duten katoliko-ilketa bezin aundirik ezta Mejiko'n izan, katolikoak igarotzen ari diran egun ilunak asi ziranetik. Eririk kanpoan bilduta, 300 lagun meza entzuten ari ziranean, bat-batean Calles'en gudari edo soldaduak inguratu zituzten, tiroka asi ta iya 100 an bertan ilik utzi zituzten; oyen artean bi apaiz.

Ara zer dion beste izparingi batek: Beste gobernu katolikoak Mejiko'n dauzkatzen ordezkariak, jakina da, beren etxetan meza eman-azi ta entzuteko eskubidea dute. Au ere etzayo noski ondo iruditu Calles'i, baño nola galerazi ta kendu eskubide ori? Ara nola: apaizak, etxe oyetatik atera bezin laster, bere eskue-tan eroriko zirala zematuz. Inglatefa'ko protestanteen artean ere befi au oso gaizki erori omen da.

Jesukristo'ren irudi galanta.

Corcovado mendi gain-gaiñean Jesus'en irudi bikain ta galanta laster ikusi-ko dute Rio de Janeiro'koak. Aspaldian asi ziran ta lanak oso aufera omen dijoaz. Afi-bizian 500 bat lagun artuko dituen elizatxo bat egin da ta onen gaiñean irudia ipiniko dute. Irudiak 40 metro ta geyago izango ditu onetatik bururaño ta bi beso irikiak 30 metro. Gauaz argi bizi-biziak izango ditu, itxaso bařena dijoazenak ere ikusi dezaten.

Pazkoazkoa egin nai ta ezin.

Siberia erdi-erdian bizi diran katoliko batzuek Txina'ko mixiolari bati ots-egin diote, norbait bialtzeko esanaz, berak ere bakařtade artan pazkoazkoa urtero egin dezaten. Iya 70 dira katoliko oyek ta jatoriz alemandarık. Kristau zintzo oyen borondate ta gogo onak ikusita, mixiolari batek araño egin beaf duen bide luze ta nekez betetakoa artu du. ¡Ta gure eliz-atarietan ofenbeste kristau pazkoazkoa ajolik gabe uzten dutenak!